



Erantzuna, babesa eta konpromisoa

Respuesta, protección
y compromiso



**Aldi baterako babes-estatutua duten
pertsonek eta familiek ukrainarrak
hartzeko ekimenak**

Erreskate sozialeko funts bat da, **15,1 milioi eurokoa**.

Eusko Jaurlaritzak aktibatu du Ukrainako gerrak Euskadin duen eragin sozialari aurre egiteko, eta bi ildo eta hainbat programa ditu. Alde batetik, **9,3 milioi euroko laguntzak bermatzen ditu EAEko gizarteko talde bereziki zaugarrientzako**; tartean, hauentzako:

- Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) jasotzen dituzten pertsonak eta familiak; laguntza horietara 3,5 milioi euro gehiago bideratuko dira, 45 milioi eurora arte.
- Diru-sarrerarik gabe geratu diren eta GLLak eskuratu ezin dituzten beste pertsona eta familia batzuk (euskal herritar guztiei zuzendutako Azken Sarea Indartzen programako dirulaguntzak, 3 milioi eurokoak).
- Energia-pobretasuneko egoerei aurre egiten dieten pertsonak eta familiak; Gurutze Gorriak kudeatzen duen energia-pobretasuneko programara 200.000 euro gehiago bideratuko dira (1.000.000 euroraino).
- Adineko pertsona zaugarriak (bakarrak daudenak), tokiko laguntza-sareen bidez (adinekoen Loturak programa, 500.000 eurokoa).
- Familia-laguntzako sarerik ez duten gazteak (Trapezistak programara 1,5 milioi euro gehiago bideratuko dira, indartzeko).
- Etxegabetasun-arriskuan dauden beste batzuk (etxegabetasuna prebenitzeko programa, 600.000 eurokoa).

Bestalde, **aldi baterako babes-estatutua duten pertsona eta familia ukrainarrak hartzeko ekimenak** aurreikusten ditu, bai eta asiloa eta babesa eskatzen duten beste pertsona batzuk edo migratzaileak (Loturak eta Aukerak Suspertzen programetan, besteak beste) hartzeko ekimenak ere, **5,8 milioi eurokoak**, honako hauek barne hartuta:

- Lehen harrerako programa bat (1.500.000 euro).
- Laguntza ekonomikoen programa bat, 3.000.000 eurokoa (Azken Sarea Indartzen-Ukraina).
- Tokiko harrera-sareen programa bat, babes komunitarioko eredu batetik (migratzaileen Loturak programa), 500.000 eurokoa.
- Arreta psikosozialeko programa bat (Berritze programa), 500.000 eurokoa.
- Eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzuko programara (Aukerak Suspertzen) 300.000 euro gehiago bideratzea.

OHAR GARRANTZITSUA: MAIATZAREN 16KO DOKUMENTU HONETAN JASOTAKOAREN ARABERA, INFORMAZIO GEHIAGO EMANGO DA, ETA, BEHAR IZANEZ GERO, EGUNERATU EGINGO DA.

PERTSONA ETA FAMILIA UKRAINARRAK HARTZEKO LAGUNTZA-ILDOA

Ukrainako gerraren ondorioz lekualdatutako pertsonak eta familiak hartzeko Eusko Jaurlaritzaren II. Kontingentzia Planaren barruan dago.



Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio asiloa eta babesa eskatzen duten pertsonen eta familien arreta ematea. Horregatik, aurkezten diren programak Nazioarteko eta Aldi Baterako Babeseko Harrera Sistemaren (SAPIT) osagarri dira.

Eusko Jaurlaritzak mantendu egingo ditu, Estatuko Administrazio Orokorrak SAPITen berezko prestazio guztiak garatzen ez dituen bitartean, hala nola alokairurako laguntza ekonomiko bat, eta, SAPITen bidez edo beste modu batzuetan, 2011/55/EE Zuzentarauak aldi baterako babes- estatutua duten pertsonen aitortzen dizkien eskubideei erantzuten badie.

Helburua:

Aldi baterako babes-estatutua duten pertsona eta familia ukrainarrei laguntzeko programa integral bat antolatzea, SAPIT behar den guztian osatzeko, Estatuko Administrazio Orokorrak bere prestazioak garatu eta 2001/55/EE Zuzentarauak estatutu hori duten pertsonen aitortutako eskubide guztiak estali arte.

Hartzaileak:

Ukrainar jatorriko pertsonak, aldi baterako babes-estatutua aitortuta dutenak (sartzeko, eskaeraren frogagiria aurkeztu behar dute), SAPITi, uko egin ez diotenak, Euskadin bizi direnak (errolatuta edo errolda-eskaerarekin) eta gizarteratze-prozesuak hasi dituztenak, bai eta pertsona horiek hartu dituzten familiak ere.

Lehen harrerako programaren ondoren aurkezten diren lau programak osagarriak dira, eta aldi baterako babes-estatutua duten eta familietan hartu dituzten edo erakunde eta partikularrek lagatako etxebizitzetan (etxebizitzak doan lagatzea) bizi diren pertsona eta familia ukrainarrentzako laguntzeko sare bat osatzen dute. Posible da lau programei buruzko informazioa jasotzea eta programa horietan sartzea eskatzea.

Horretarako, 747 45 74 61 telefonora deitu edo errefuxiatuak@euskadi.eus helbidera idatzi behar da (biak Zehar Errefuxiatuen Taldeak kudeatzen ditu).

LEHEN HARRERAKO PROGRAMA



Orain arte, honako ekimen hauek bultzatu dira programa honen esparruan.

PERTSONEI ETA FAMILIEI HASIERAKO OSTATUA EMATEKO ZENTROAK

Programa horren esparruan, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko beste administrazio publiko batzuek Estatuko Administrazio Orokorraren esku jarri dituzte aldi baterako harrera-zentro batzuk, SAPITen lehen fasekoak, bai eta beste erkidego batzuetara lekualdatzen diren pertsona eta familientzako hasierako harrerako eta iragateko beste plaza batzuk ere.

Jarduketa horien osagarri, material errazak argitaratu dira ukraineraz, euskaraz eta gaztelaniaz: maiz egiten diren galderak eta erantzunak (FAQ), sare sozialen bidez zabaltzen diren bideoak, geltokietan eta helmugetan kokatzeko kartelak. Era berean, pertsona eta familia ukrainarrak hartzeko gida bat egin da, eta eguneratuta dago.

ITZULTZAILEEN SAREA

Itzultzaileen sare bat ere egituratu da; hain zuzen ere, eskualdeka erabilgarri dauden pertsonak identifikatu dira, eta itzultzaile bat sartu da aldi baterako babes-estatutuaren aitortpena eskatzeko gaitutako polizia nazionalaren polizia-etxe bakoitzean (lurralde historiko bakoitzeko bat).

1 AZKEN SAREA INDARTZEN – UKRAINA



Laguntza ekonomikoak emateko programa bat da. Euskadiko Caritasek kudeatzen du Euskadiko hirugarren sektore sozialeko hainbat erakundeekin batera. Erakunde hauek Ukrainatik datozen pertsona eta familientzat erreferentziazko entitate gisa jarduten dira

Laguntzak Euskadin erroldatuta dauden eta aldi baterako babes-estatutua aitortuta duten pertsonentzat dira, Nazioarteko eta Aldi BATERAKO Babeserako Harrera Sistemak (SAPIT) sartzea uko egin ez dutenak, eta familietan hartu dituzten edo erakunde edo partikularrek lagatako (etxebizitzak doan lagatzea) etxebizitzetan bizi direnentzat.

Laguntzak hileko 340 eta 520 euro artekoak izaten dira, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera (harrera egin zaion familia, gehien bat, emakumeak dira eta beren ardurapean haur bat edo bi dituzte).

Laguntza hau EAEn diru-iturririk ez duten eta Ukrainako gerraren ondorioz lekualdatu diren pertsona eta familientzat da, eta murriztu edo iraungi egingo da beste laguntza edo prestazio ekonomiko batzuk edo lan egiteagatik diru-sarrerak eskuratzean.

Familietan hartutako pertsonen kasuan, harrera-etxeko gastuetan lagundu ahal izateko da laguntza, bai eta oinarrizko premiatzat jotzen diren beste gastu batzuetan laguntzeko ere, hala nola mantenuan, arropan, agindutako medikazioan (osasun-sistemak estaltzen ez badu), premia handiko higie-ne-produktuetan, garraioan edo konektibitatean.

Laguntza hori atzeraeraginezko izaerarekin planteatzen da, bizikidetzaren egiaztatzen den unetik aurrera. Nolanahi ere, inoiz ez 2022ko martxoaren baino lehen, iritsiera-data egiaztatu den egunetik 2022ko abenduaren 31ra arte. Ezin dira bertara sartu SAPITeko zentro batean daudenak (bai, ordea, plaza esleitzearen zain daudenak).

PROGRAMARA ZUZENEAN SARTZEA

Telefono hauean, Ukrainatik lekualdatutako pertsonentzako laguntzei buruzko informazioa eskatuta: 747 458 150 (Bilboko Elizbarrutiko Caritas); 943 44 07 44 (Donostiako Elizbarrutiko Caritas); 945 23 28 50 (Gasteizko Elizbarrutiko Caritas). Eta laster emango den erreferentzia-zerrendako edozein erakunderen bidez.

2 LOTURAK – migratzaileak hartzeko tokiko sareak



Programa honek laguntza eskaintzen die pertsona eta familia ukrainarrei gizarteratze-prozesuan, harrera-familien lana osatuz eta lagunduz, talde profesionalen eta harrera-talde lokalen bidez. Pertsona eta familia ukrainarrei komunitatean integratzen laguntzeko talde horiek boluntarioek osatzen dituzte.

Ekimen hauek migratzaileei edo asilo- eta babes-eskatzaileei harrera egiteko Euskadin bultzatzen den **babes komunitarioaren ereduaren** barruan kokatzen dira.

Programak errefuxiatuak@euskadi.eus helbidearen bidez jasotako boluntariotza-eskaintzak eta -beharrak ere artikulatzen ditu.

Programak prestakuntza eskaintzen die boluntarioei, online eta aurrez aurre, Ukrainako gerraren ondorioz lekualdatutako pertsonen eta familien egoerari buruz, besteak beste. Halaber, boluntario gisa lagundu nahi duten pertsonak boluntariotza-erakundeetara edo harrerako tokiko taldeetara bideratzen dira.

PROGRAMARA ZUZENEAN SARTZEA

Euskadi osoan, Ellacuría fundazioaren bidez (programaren erakunde nagusia). Telefonoa: 747 47 39 26

Bilboko Elizbarrutiko Caritasen bidez (erakunde laguntzailea). Telefonoa: 747 45 81 56

Uribe-kostan, Pertsonalde elkartearekin harremanetan jarrita. Telefonoa: 613007437 / 688625305.

Bizkaiko beste eskualdeetan eta Bilbon, Ellacuria fundazioaren bidez: 747 47 39 26.

Donostialdean eta Gipuzkoako beste eskualdeetan, Loiola etxea elkartearekin harremanetan jarritz. Telefonoa: 620 92 87 39

Gasteizen kontaktu bat emango da laster.

Orduategia: 9:00tatik 20:00tara, astelehenetik ostiralera.

3 BERRITZE - LAGUNTZA PSIKOSOZIALEKO PROGRAMA



Agintzari kooperatibak kudeatzen duen programak laguntza psikosozialeko taldeko eta, hala badagokio, banakako hiru esku- hartze mota egituratzen ditu:

- Txernobylgo bazterte-eremutik gertu bizi diren haurren harrera-familiei laguntzea, Errusiaren okupazioarekin lotutako larritasun- eta antsietate-uneetan lagunduz (dagoeneko egin dira esku-hartze horiek), bai eta denboran luzatzen dira eta haien familiak barne hartzen dituzten familiako harrera-prozesuetan ere (haurren udako edo Gabonetako oporraldietan egin ohi dituztenetan ez bezalakoak).
- Harrera-etxeei (hartutako pertsonak eta harreragileak) laguntzea, prebentzioso, bizikidetzarako prestatzeko eta laguntza psikosozialeko espazio psikohezitzaileen bidez eta elkarri entzuteko eta laguntzeko espazioen bidez, laguntza profesionalarekin.
- Ukrainako gerraren ondorioz lekualdatutako pertsonen eta familiei balorazio eta arreta psikologikoa estres traumatikoko eta/edo dolu konplikatuko egoerei aurre egiten badiete, eta, beharrezkoa denean, abordatze terapeutikoak egiten badituzte. SAPITen sartu direnek SAPITen bidez jasoko dituzte balorazio eta arreta psikologikoko prestazio horiek, SAPITen laguntzarik jasotzen ez duten adingabeak izan ezik.

Eta, hartzaileen hiru taldeekin, aholkularitza eta orientazioa.

PROGRAMARA ZUZENEAN SARTZEA

Agintzariren harremanetarako telefono hauen bitartez: Finkoa 94 474 52 55. Mugikorra 688 82 03 23 eta 688 86 84 53.

Arreta ordutegia: 9:00tatik 20:00tara, astelehenetik ostiralera.

Hona ere jo daiteke: berritze@agintzari.eus

4 AUKERAK SUSPERTZEN



Agintzari kooperatibak kudeatzen du programa, eta 25 erreferentzia-erakundek parte hartzen dute. Honako hauei zuzentzen zaie:

- Ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan Lehen edo Bigarren Hezkuntzan dauden haurrak eta nerabeak, beren hezkuntza-prozesuarekin jarraitzeko zailtasunak dituztenak (eten digitala) eta gizarte-desabantailako egoeran daudenak.
- Haien familiak (gurasoak eta legezko tutoreak).

Ukrainako gerraren ondorioz lekualdatutako haurrak eta nerabeak eta haien amak edo legezko tutoreak barne.

Hau eskaintzen du:

- **Eskolaz kanpoko hezkuntza-errefortzua:** Ikasteko ohiturak. Azterketa-teknikak testuinguru presentzian eta ez-presentzian. Trebetasun digitalak eta bitartekoak erabiltzeko irizpideak. Hizkuntza-gaitasunak (gaztelania eta/edo euskara).
- **Familiantzako laguntza:** Seme-alabei ikasketetako lanak egiten laguntzea. Hizkuntza-gaitasunak. Trebetasun digitalak eta bitartekoak erabiltzeko irizpideak. Guraso-trebetasunak arlo horretan.
- **Konektibitatea:** Gailu egokirik ez duten Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitarteko haur eta nerabeentzat. Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 4. mailara arte, eta eskolaz kanpoko hezkuntza-laguntzarekin, online modalitatean. Gaur egun, familien araberako banaketa- irizpideak honako hauek dira: 1 gailu familiako haur edo nerabe bakoitzeko.

PROGRAMARA ZUZENEAN SARTZEA

747 41 99 06 (Agintzari) telefonora deituz edo posta elektroniko bat idatziz: aukeraksuspertzen@agintzari.com